

Enberera hizkuntza Kolonbian: ahozkotasunetik idazterako bidean

Baltazar Mecha

*Asociacion OREWA (Organización Indígena del Chocó, Colombia)
Universidad Tecnológica del Chocó Diego Luis Cordoba, Programa de Educación
Cultural Territorial Indígena*

Andoni Barreña

*Salamanca Unibertsitatea, UPV-EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen
UNESCO Katedra
andoni@usal.es*

Mikel Mendizabal

*UPV-EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra
lapitze28@gmail.com*

Sarrera-data: 2013-01-09 / Onartze-data: 2013-02-20

Laburpena. Kolonbiako Chocóko enberek XX. mendearen amaieran erabaki zuten euren hizkuntza idazterako bidean jartzea, eskolan hobeto txerta dadin. Lehenago, alboratuta zuten idaztearen aukera, gizartea eta kultura babestearren. Chocóko OREWA elkarte indigenoak eta Quibdóko Universidad Claretiana FUCLA delakoak enberera hizkuntzaren idaztea bultzatzeko ekimena jarri zuten abian 2010ean: *Fortalecimiento del uso de la lengua nativa en el proceso de educación escolar para las comunidades embera en el Departamento del Chocó*. UPV-EHUko Munduko Hizkuntza aniztasunaren UNESCO Katedrari laguntza eskatu zioten. Artikulu honetan, 2010-2012 aldian garatutako lana zein izan den azalduko da. • **Hitz-ga-koak:** enberera hizkuntza, hizkuntza-aniztasuna, estandarizazioa, alfabetatzea, eskola-materiala sortzea, irakasleen gaitasuna, hizkuntza-lankidetzaz.

Abstract. At the end of the 20th century members of the Embera community of Chocó, Colombia decided to take steps produce a written form of their language so that it could be better incorporated into schools. Previously, they had abandoned the possibility of writing in order to protect the society and culture. The OREWA indigenous association of Choco and the FUCLA-Claretian University Foundation of Quibdó started an initiative in 2010 to produce a written form of the Embera language. *Fortalecimiento del uso de la lengua nativa en el proceso de educación escolar para las comunidades embera en el Departamento del Chocó* [Strengthening of the use of the native language in the school education process for the Embera communities in the Chocó Department]. The UNESCO Chair in World Language Diversity of the UPV/EHU-University of the Basque Country was asked to assist in the project. This article explains the work completed between 2011 and 2012. • **Key words:** Embera language, language diversity, standardization, literacy programme, creating of school materials, teacher competence, language collaboration.

SARRERA

I

Munduko 525 hizkuntzetako informatzaileen bidez eginiko ikerketa batean nabarmen ondorioztatu ahal izan zen hizkuntza-komunitate guztiek edo ia guztiek nahi dutela euren hizkuntza eta kultura hezkuntza-sisteman txertatu, baita euren eskola euren kulturaren eta gizarte-motaren arabera kudeatu (Martí et al., 2005).

Ildo horretatik, Abya Yala¹-ko indigenak behin eta berriro aldarrikatzen ari dira jatorrizko hizkuntzak gizarteko arlo guztietara zabaltzea, bereziki hezkuntzara (López eta Sichra, 2008). Era berean, hezkuntza-sistema bera ere euren kulturaren eta kosmobisioaren arabera moldatu ahal izatea eskatzen dute.

Emandako urratsak gutxietsi barik, orain arteko lorpenak urriak izan direla esan daiteke. Azkeneko 30 urteetan zehar, zenbait estaturen eskutik *Kulturarteko Hezkuntza Elebiduna* (KHE)² delakoa abian jarri bada ere, jatorrizko hizkuntzak eta kulturak astero bizpahiru orduko sarrera izan dute eskola indigenetan, indigenek gehiengoa osatzen duten eskoletan, alegia. KHE dela eta, esaterako, Ekuadorren 1988.ean *Dirección Nacional de Educación Indígena Intercultural Bilingüe de Ecuador* delakoa eratu zuten, eta 1994.ean *Consejos Educativos de Pueblos Originarios de Bolivia* erakundea sortu zuten Bolibian.

Hala ere, izandako esperientzian oinarriturik eginiko hausnarketan eta ebaluaketan oinarriturik, Kolonbiako CRIC³ elkarte indigenaren inguruan esaterako, KHEren ildotik eraiki den eskolak haur eta gazte indigenen gaztelanizatzea bizkortu baino ez duela egin ondorioztatu dute, eta euren kulturak eta hizkuntzak galduz jarraitzen dutela. Hots, KHE delakoa gaztelanizatzeko mozorrotoa izan dela uste dute. Haatik, eskakizuna orokorragoa da XXI. mendean: eraiki dezagun geure eskola gure kulturatik eta hizkuntzatik, geuk kudeatuta.

Artikulu honetan halako esperientzia xume baten berri emango da, enbera herriarena. Lehenengo eta behin enbera herria eta enberera hizkuntza aurkeztuko dira. Ondoren, egitasmoaren berri emango da. Amaitzeko, egindako lanaren inguruko zenbait gogoeta azalduko dira.

1. ENBERA HERRIA

I

Enberera⁴ hizkuntza gutxi gorabehera 70.000 lagunek hitz egiten dute. Herritar gehienak Kolonbian bizi dira, 20.000 inguru Panaman eta ehunka batzuk Ekuadorren, euren lurraldea Panamako hegoaldetik Ekuadorreko iparraldera hedatzen baita.

**Enberera
hizkuntza gutxi
gorabehera
70.000 lagunek
hitz egiten dute.
Herritar
gehienak
Kolonbian bizi
dira, 20.000
inguru Panaman
eta ehunka
batzuk
Ekuadorren,
euren lurraldea
Panamako
hegoaldetik
Ekuadorreko
iparraldera
hedatzen baita.**

**Chocóko enberak
euren kultura eta
hizkuntza
babesten
ahalegindu dira,
eta horretarako
nahita baztertu
dute idazkera
fonologikoaren
erabilera 1986ra
arte.**

Kolonbiaren barruan enbera herritarrak Antioquia, Bolívar, Caldas, Córdoba, Chocó, Risaralda, Valle, Cauca eta Nariño departamentuetan bizi dira, hots, Kolonbiako Ozeano Barea aldean.

Enberera hizkuntza, hiztunen arabera, elkarrekin erraz ulertzea ahalbidetzen duten lau aldaerek osatzen dute: *topida* (gaztelaniaz *embara dobida*⁵; *to*, *ibaia*; *topida*, *ibaitarrak*), *eyapida* edo *epapida* (gaztelaniaz *embara katío* edo *embara eyabida*; *eya* edo *ea*, *mendia*; *eyapida*, *menditarrak*), *oipida* (gaztelaniaz *embara chamí* edo *embara oibida*; *oi*, *oihana*; *oipida*, *oihandarrak*) eta *eperara siapidara* (*sia*, *gezia*; *siapida*, *gejidunak*). Lehen, aldaeretako hiztunak geografikoki bereizi egiten baziren ere, gaur, behartutako leku-aldatzeak direla eta, aldaera ezberdinetako hiztunak elkarren ondoan bizi dira sarri.

Enberera hizkuntza hainbat hizkuntzalarik deskribatu dute (Loewen, 1963; Pinto, 1978; Pardo, 1985, 1986, 1987; Pardo eta Aguirre, 1993; Llerena, 1992, 1994; Aguirre, 1992, 1993, 1995, 1999; Chaves, Ulloa, Morales eta Ceron, 1992; Mortensen, 1999; Hoyos, 2000; Arellano eta Arellano, 2002; Cayo, 2002; Fabre, 2005) eta herria hainbat antropologok. Halere, oso gutxi da indigenek eurek idatzi dutena, euren hizkuntzaz zein kulturaz. Salbuespena Borja eyapidak (2009) idatzitako hiztegia da, enbera batek idatzi duen lehen hiztegia.

1.1. Kolonbiako Chocóko enbera herritarrak

Chocó deritzan departamentua da Kolonbian enbera gehien biltzen duena. Chocón enberak, waunanak eta gunaduleak bizilagunen %9 dira, gutxi gorabehera: enberak 52.000 inguru, wounanak 5.000 eta ehunka batzuk gunaduleak (tuleak). Gainera Chocóko bizilagunak beltzak dira. Enberera eta wounaanera hizkuntzak chocoar taldeko hizkuntzak dira (Aguirre, 1999), taldeko bakarrak.

Kolonbiako Chocó departamentuko enberak 1.497.134 hektareetatik zabaltzen diren 117 babesguneetan bizi dira. Alabaina, babesgune horien mugak murriztuz doaz, paramilitarren eta militarren erasopean. Ahal dutenean, hots, bakean uzten dituztenean, euren herriak ibai-ertzetan eraikitzen dituzte enberak.

Chocóko enberak euren jatorrizko sinesmenak gordetzen dituzte eta euren hizkuntzak bizitasun handia du, ahozko erabileran. Erraz samarra da gaztelaniarik ez dakiten edo gaztelaniaz gaitasun oso mugatua duten emakumeak eta umeak aurkitzea. Gaztetxoek ere ez dute gaztelaniaz hitz egiteko ohiturarik, behintzat herrixketan bizi direnak. Alabaina, euren egoera soziopolitikoa ikaragarria da, izugarria: bortizkeria etengabeak (bat baino gehiago baitira), leku-aldatze behartuak, desjabetze arrazoigabeak eta miseria gorria.

1979an OREWA elkarteak sortu zuten ikasle gazteek, herri indigenen kulturak eta hezkuntza-eskubideak gordetzearen. 1981ean Organización Regional Embera Wounaan bihurtu zen (Rojas, 2009⁶). Elkarrekin horrek indigenek daukaten autonomia murriztu kudeatzen du, kudeatzeko aukera duenean, eta 2011. urtetik aurrera enbera-eskolez arduratzen da.

Chocóko enberak euren kultura eta hizkuntza babesten ahalegindu dira, eta horretarako nahita baztertu dute idazkera⁷ fonologikoaren erabilera 1986ra arte. Jarrera hori ulertzeko, kontuan izan behar da eliza katolikoaren ahalegin ikaragarria indigenak zibilizatzeko, ebangelizatzeko eta gaztelanizatzeko, eta enberera hizkuntza deabruaren hizkuntza legez irudikatzen. Haatik, enberak eurak, hizkuntza eta kultura gorde nahian, enberera beste hizkuntzetara itzultzera ukatu ziren. Alabaina, 1986tik aurrera, nagusien batzordeak enberera eskolara eramateko asmoz idazketa-bidean abiatzea erabaki zuen.

Orduan enberak hainbat hizkuntzalariri eta antropologiari, hala nola Mauricio Pardo Rojas, Rito Llerena Villalobo, Mario Hoyos, Marta Espinel eta Miller-i, baimena eman zieten ikertzeko. Baina 1992tik aurrera, zeregin horri Baltazar Mecha Forastero enberak ekin zion, harik eta 2010eko maiatzean Chocóko enbereraren idazkera-proposamena Buruzagi Indigenen biltzarrean aurkeztu zuen arte. Biltzarrak onartu egin zuen proposamena.

Gaur, Chocóko ume eta gazte enberak gaztelaniaz eskolatzen dira, baina Chocóko Diócesis delakoa hezkuntza-sistema indigena kudeatzen hasi zenetik eskola enberatartzeko era asmatu da. Idatzia dena gaztelaniaz den arren, irakasle enbera-hiztunak aukeratu dituzte. Dagoeneko irakaslearen %90 da enberera-hiztuna eta ahozko komunikazio guztia enbereraz ei da. Halere, jokabide horrek irakasleen prestakuntza izan du eragina, gehienetan aukeratutako irakasleek ez baitute irakasle-prestakuntzarik, batxilergo baina.

Egoera horrelakoa izanik, 2010ean bertan, Buruzagi Indigenen agindua betetzeko, *Fortalecimiento del uso de la lengua nativa en el proceso de educación escolar para las comunidades épera en el Departamento del Chocó* izeneko egitasmoari eman zioten hasiera, enbera-irakasleak euren hizkuntzaren irakaskuntza trbatzeko eta enberera hizkuntza idazkera-bidean jartzeko eskolako zereginetan.

2. EGITASMOAREN NONDIK NORAKOA

I

Fortalecimiento del uso de la lengua nativa en el proceso de educación escolar para las comunidades épera en el Departamento del Chocó egitasmoa FUCLA Unibertsitate klaretiarreko zenbait ikasle enberak eta irakasle abiarazi

**Orain arteko
agrafismoak,
behintzat
alfabeto
fonologikoaren
erabileran, eta
urteetan izan
duten jarrera
bakartzalea, bere
garapenaren
aurkakoa izan
daiteke eta
herritar guztien
kontrakoa ere.**

zuten 2010ean. Nabarmendu behar da ikasle enberak OREWA elkarte indigenaren ekintzaile entzutetsuak direla, eta horrek OREWA elkartearen inplikazioa ekarri duela.

Egitasmoaren lehen idazketan helburuak eta lortzea itxaroten ziren ekoizkinak zehaztu ziren:

HELBURUAK

— Garatu enberera hizkuntza eskolako irakaskuntza-hizkuntza izango den proposamen pilotoa.

— Aurkeztu enberera hizkuntzaren idazkerarako grafia bateratuaren proposamena.

EKOIZKIN LORGARRIAK

— Enberera hizkuntzarentzako grafia bateratuaren inguruan erabaki adostua onartzea.

— Enbereraren idazketaren eta irakurketaren irakaskuntzarako tresna pedagogikoak diseinatzea.

— Enbereraren gramatikaren egituraketarako prozesu pedagogikoa taxutzea, baita berorren ondorengo eskolaratzea ere.

Prozesu hori burutzeko, hiru urratseko plana egin zen: grafia-kontuetan adostasuna lortzea, enberaren hiztegia osatzeko hitz-bilketa egitea eta eskolan erabiliko diren idazketarako eta irakurketarako tresna eta baliabide pedagogikoak eraikitzea.

Egitasmo hau gauzatu ahal izateko aholkularitza eskatu zitzaion *Euskal Herriko Unibertsitateko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Kate-drari*, Euskal Herriak bizi izandako esperientziagatik eta hezkuntzaren arloan euskara eskola-sisteman txertatzean izandako arrakastagatik.

2.1. Egitasmoaren mugarriak

Enberera hizkuntzaren erabilera idatziak enbera guztiei eta herritar guztiei euren kultura-sustraiak gaur egungo gizartean txertatzea ahalbide-tuko die. Gainera, Kolonbiako zein munduko kulturara hurreratzea erraztuko die enberei, baina euren jatorrizko kultura gordez eta errespetatuz. Prozesua orekatua eta lasaia izateak uzta ugariagoa, ederragoa eta emankorragoa ekarriko du, enbera gizartearentzat zein Kolonbiako gizartearentzat eta gainekoentzat.

Alabaina, tresna eta baliabide horien eraiketa komunitateak berak egin behar du, enberek eurek egin behar dute. Irakasle enberek eta irakaskuntzako aditu enberek diseinatu eta eraiki behar dituzte tresnok. Hainbat kanpoko laguntza beharko dute, baina protagonismoa euren

izan behar da: eurek zehaztu behar dituzte tresnak, mugatu prozesua eta burutu eraiketa.

Komunitate bakoitzak bere eskola kudeatu behar du, herri bakoitzak berea. Komunitateak zehaztu behar du bere hezkuntza-curriculum. Irakaskuntzako irakasleek eta adituek eraiki behar dituzte beharrezko jotzen dituzten tresnak eta baliabideak hizkuntzaren eta didaktikaren arloan. Prozesu hori partehartzailea izango da eta bertan eskolako eta komunitateko alde guztiek daukatena emango dute, eta frutua ere denok jasoko dute.

Tresna horiek oso beharrezkoak dira enberen gizartearentzat bere etorkizunerako. Enberera hizkuntzaren normalizazioa lortzeko behar-beharrezkoa da kodigo idatzia eraikitzea. Orain arteko agrafismoa, behintzat alfabeto fonologikoaren erabileran, eta urteetan izan duten jarrera bakartzailea, beren garapenaren aurkakoak izan daitezke eta herriar guztien kontrakoa ere, hizkuntzaren higatzea eta bazterketa ekarri dezakeelako, bereziki eskolan gaztelania eta gaztelaniaz baino ez delako erakusten. Gainera, eskolara ez ezik, beste hainbat eremutara zabaltzea ere beharrezkoa du enbererak, eta horretarako beharrezkoa da kodigo idatzia izatea. Kultura-eremu prestigiotsuetan ez erabiltzea hizkuntza-galera ekar dezake, hiztunek apurka-apurka bazterrean utzi dezaketelako. Autoestima ere gal dezakete enberek, eta jatorriaren aurkako praktikaren bidetik abia daitezke, atxikimendua galduz eta sustraiekiko etenduraren ondorioz noraezean ibiliz.

Psikolinguistikaren ikuspuntutik gizabanakoaren garapena askoz ere orekatuagoa eta zilegiago da eskolan, eta bereziki irakurketa eta idazketa-prozesuan, jatorrizko hizkuntza eta kultura lantzen badira. Horrela, jatorrizko kulturaren arbuiapena eta gizakiaren autobazterkuntza ekidin daitezke. Gainera, soilik era honetan bideratu eta erraz daitezke herrien eta kulturen txertatze orekatua eta harmoniotsua bizikidetzagegitasmo orokorrean.

2.2. Egitasmoaren metodologia

Parte-hartzea eta ikerkuntza dira egitasmoaren lan-metodoaren oinarriak. Egitasmoaren jatorria gizarte enberan dago, bere errealitatean eta beharretan errotua, eta halako prozesuetan ohikoa izaten den laguntza akademikoa du.

Enberak dira egitasmo honen protagonistak, bereziki irakasleak, eurek baitira egitasmoaren bihotza osatzen dutenak. Enberena izan zen hasierako ekimena, eurek zerrendatu dituzte helburuak, eurek diseinatu dituzte eraikiko diren tresnak eta eurek egin beharko dute lana. Hori

guzti hori gauzatzeko, aldian aldiko tailerrak egiten dira, hiztegia bilatzeko, material pedagogikoa osatzeko eta irakasleen alfabetatzea lortzeko.

3. EGITASMOAREN GARAPENA

I

Lankidetzan 2010ean hasi zen, eta une honetan ere indarrean dirau egitasmoak.

3.1. Hasierako urratsak 2010ean: sistema ortografikoa eta hitz-bilketa

Hasieran, 2010ean, enberaren sistema ortografikoaren proposamena egin zuen Chocóko OREWA elkarteak Baltazar Mecha hizkuntzalari enberaren bidez, horretarako latindar alfabetoaren letrak eta digramak proposatu zituelarik. Enberaren sistema fonologikoak 12 bokal eta 20 kontsonante ditu; bokaletako 6 ahokariak dira, eta beste 6 sudurkariak; kontsonanteak honela bil daitezke: 8 herskari, 3 sudurkari, 3 urkari, 3 igurzkarri, 2 dardari eta afrikaria. Halere, enbereraren fonologiaren aritu diren adituek kontsonante-kopuru ezberdinak eman dituzte, esaterako, Aguirrek (1999) 16 eta Cayok (2002), Loewen-en (1963) lanean oinarrituta, 21.

Bestalde, Antioquiako departamentuan lanean ari den Borjak (2009) beste sistema ortografiko bat darabil, 19 kontsonanteduna. Sistema bien ezberdintasun nagusienak hauexek dira: a) Mecharenak herskariaren artean 8 kontsonante bereizten ditu; Borjarenak, oster, 7 baino ez; b) OREWAK *ts* digrama afrikarizat du *topida* eta *oipida* dialektoetan eta igurzkarizat *eyapida* dialektoan; Borjak, oster, *eyapida* dialektoko hiztuna izanik, *z* grafema aukeratu du fonema igurzkarri hori adierazteko.

1. Taula. Enbereraren bokalak OREWA elkarteko Mechak eginiko proposamen ortografikoaren arabera.

	<i>aitzinekoak</i>	<i>erdikoak</i>	<i>borobilak</i>	<i>ez borobilak</i>
<i>goiko ahokariak</i>	i		u	ɯ
<i>erdiko ahokariak</i>	e		o	
<i>beheko ahokaria</i>		a		
<i>goiko sudurkariak</i>	ɿ		ʊ	ɰ
<i>erdiko sudurkariak</i>	ɛ		ɔ	
<i>beheko sudurkaria</i>		ä		

2. Taula. Enbereraren kontsonanteak OREWA elkarteko Mechak eginiko proposamen ortografikoaren arabera.

	ezpainbikaria k	horzkaria k	hobikariak	sabaikaria k	belara	laringekoa
hetskari ahostunak	b		d		g	
hetskari ahoskabeak	p	t		k		
hetskari ahoskabe hasperenduak	ph	th				
dardarkari bakuna			r			
dardarkari anitza			rr			
sudurkariak	m		n	ñ		
igurzkariak			s	ts		j
afrikariak				ch		
urkariak	w	l	y			

Sistema ortografikoa aurkezteaz gain, lanari ekin zitzaionean, hiztegia biltzeko metodologia ere diseinatu zen.

Irakasleek hiztegia eremu semantikoen edo interesguneen arabera biltzea erabaki zuten. Horretarako, hainbat eremu semantiko edo interesgune lantzea adostu zuten, hala nola, *Giza-gorputza, Etxea, Lurralde, Senideak eta gizartea, Jarduerak, Eguraldia, Denbora kronologikoa, Adjektiboak, Zentzumenak, Jantziak eta apaingarriak, Teknologia-lanabesak, Gaixotasunak eta prozesu biologikoak, Zenbakikuntza eta eragiketak, Arazeria, Garraiobideak, Mitologia eta Haur-hizkera*.

Hitz-bilketa oinarritzko hiztegia eraikitzeke asmoz egin zen, baina baita bilketan parte hartzen zuten irakasleen alfabetatzea lantzeko ere. Orain arte aditu arrotzek argitaratu dituzten enberera-hiztegiak akatsez beterik ei daude, eta beharrezkotzat jotzen dute enberek hiztunek euren biltzea hiztegia⁸.

Gainera, hitz-bilketa Chocón hitz egiten diren hiru hizkuntzakietan egitea erabaki zen, topidaz, eyapidaz eta oipidaz, alegia. Gogoan izan behar da, inork ez duela lehenago halako lanik egin era sistematikoan, alegia, hizkuntzakietako lexikoa bildu.

Hasiera-hasieratik ikusi zen irakasle enberen alfabetatzea eta prestatuntza pedagogikoa egitasmoaren oinarritzko helburuak izan behar zirela prozesu honetan. Kontuan izan behar da, esaterako, 2010eko udan, egitasmoa hasi zenean, irakasle enberek euren hizkuntzan idatzitako lehen hitzak idazten ari zirela aitortu zutela.

3.2. Bigarren urratsa: hasierako eskola-materiala sortzen


Bigarren urratsean, 2011ko udan, hiru ardatzen inguruan ekin zitzaion lanari. Batetik, proposatutako sistema ortografikoaren egokitasunaz hausnartzen. Bestetik, hitz-bilketarekin jarraitu zen. Azkenik, irakurketa eta idazketarako lehen tresnak diseinatzeko eta eraikitzen hasi zen, hala nola, *ēpera pedea* eta *ēpera pedea phādaī* (alfabeto ilustratua eta hiztegi ilustratua) deritzanak⁹.

**Hasiera-
hasieratik ikusi
zen irakasle
enberen
alfabetatzea eta
prestatuntza
pedagogikoa
egitasmoaren
oinarritzko
helburuak izan
behar zirela
prozesu honetan.**

Irakurketa-idazketarako materiala egiten hasi zenean, Chocó departamentuan *geldiune harmatua*¹⁰ deitua zegoen eta ezina egin zitzaien hainbat irakasleri tailerrera etortzea. Lanean, beraz, parte hartze murritzagoa izan zen.

Ēpera pedea materiala hiru hizkuntzakietan burutu zen. Horretarako, grafemarioko letra edo digrama bakoitzagatik, sistema fonologikoaren fonema bakoitzagatik alegia, hitz-zerrenda laburra prestatu zuten, fonema horrekin osotutako hitzekin, eta horietako bat aukeratu beraren marrazkia egiteko (ikus 1. irudia).

1. Irudia: *ēpera pedea* irudi-alfabetoan e letrari dagokion orria, topida hizkuntzakian.



Ēpera pedea phādai dela eta, irudi-hiztegia materiala sortzen hasi zen: marrazkiak eginez eta marrazkietako objektuen izenak zerrendatuz, guztiak irakasleek aukeratutako eremu semantikoetakoak edo interes-gunetakoak.

Tailerraren amaieran eginiko ebaluatze-batzarrean honako ondorioak nabarmendu zituzten:

— hasitako ekimena eta lana jausi kualitatibotzat hartu zuten enberera hizkuntza eskolan txertatzeko bidean; lehenago, enberera hiz-

kuntza idazteari uko egiten bazioten ere, orain gazte enberak idaztea galdatzen zuten;

— ebaluaketa-saioko parte hartzaile guztiek beharrezkotzat jo zuten hasitako bidetik jarraitzea eta sakontzea;

— beharrezkotzat jo zuten irakasle gehiagoren parte hartzea bideratzea; bereziki, urrunago bizi diren komunitateetakoena; oro har, irakasleen birziklatzea eta prestakuntza oso beharrezkotzat jotzen zuten;

— egokitzea jo zuten kanpoko laguntza;

— ekimena bideragarritzat hartu zuten;

— eskolako materialen ekoizpena bideratu eta planifikatu behar zela ere azpimarratu zuten.

3.3. Hirugarren urratsa: irakasleen prestakuntza diseinatzen

2011ko udazkenean hitz-bilketan sakontzen eta *ēpera pedea phā dai* sortzen jarraitu zen, baina interesgarriena, hainbaten, irakasle enberentzat diseinatutako prestakuntza-ikastaroa izan zen. Horretarako, OREWA elkarte indigenak eta FUCCLA unibertsitateak, *Euskal Herriko Unibertsitateko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren* laguntzarekin, *Diplomatura de Etnolingüística* deritzon 200 orduko ikastaroa diseinatu zuten, 2012an zehar gauzatzeko.

Prestakuntzaren helburu nagusiak hauexek izan ziren: irakasle enberak alfabetatzea eta material-sorkuntzan trebatzea eta gaitzea. Bestalde, orain arteko lana irakasle gehiagorengana hedatzea ere bazen helburuetako bat.

3.4. Laugarren urratsa: prestakuntza, alfabetatzea eta material-sorkuntza

Diplomatura de Etnolingüística delakoa 2012an zehar garatu da. 200 ikas-torduko ikastaro hau hiru asteetan zehar (abuztuan, urrian eta abenduan) gauzatu da.

Ikastaroa 60 lagunentzat prestatzea erabaki zen, eta 60 izan dira izena eman duten irakasleak, nahiz horretarako irakasle enberek matrikula ordaindu behar izan duten, baita hiru asteetako bidaiak Quibdóra, Chocó departamentuko hiriburura, eta bertako egonaldiak.

Ikastaroan matrikulatzeko beharrezkoa izan da irakasle izatea eta enbera-hiztuna izatea. Batzuk lehendik ere tailerretan arituak izanik ere, gehienak berriak izan dira, eta zeharo alfabetatugabeak euren hizkuntzan. Guztietatik 6k baino ez dute ordanagailurik izan eta asko eta asko argindarrik gabeko herrixketan bizi dira.

Prestakuntzaren helburu nagusiak hauexek izan ziren: irakasle enberak alfabetatzea eta material-sorkuntzan trebatzea eta gaitzea. Bestalde, orain arteko lana irakasle gehiagorengana hedatzea ere bazen helburuetako bat.

Hasiera-hasieratik ikastaroan enbera hizkuntza erabiltzeko erabakia hartu da, nahiz bertaratzen diren euskaldunek enberarik ez jakin eta gaztelaniaz egin behar. Edozelan ere, lehen aldia izan da enbera hizkuntza unibertsitatean modu sistematikoan erabili dena, eta erabilera hori bultzatzea oso garrantzitsu eta beharrezkotzat jo da. Ildo horretatik, eginiko jarduera guztiei enbererazko izena jarri zaie.

Saio teorikoez gain, ikastaroan ariketa edo jarduera praktikoak lantzen dira, bereziki enbererazko idazkiak eta materiala sortzeko. Halere, helburua ez da materiala zuzenean egitea, baizik eta materialgintzan trebatzea, materiala sortzeko bidetik abiaraztea.

Jarraian, ikastaroan zehar landutako zenbait gai aipatuko dira:

— *Ēpera pedea*. Ariketa honen bidez, talde txikietan, irakasle enberek hiru dialektoetako irudi-alfabetoaren hormirudia egin dute. Horretarako, sistema fonologikoko hots edo fonema guztiak, banan banan, irudi batekin lotu dira, eta irudiak adierazten duenaren izena idatzi egin da marrazkiaren azpi-aldean edo goi-aldean, 2. irudian ikus daitekeen legez.

2. Irudia: Ēpera pedea irudi-alfabetoaren hormairudia, topida hizkuntzakian




2. irudian ikus daitekeen legez, egindakoaren lana era informatikoan gordetzeko ahalegina egin da ikastaroan.

— *Ēpera pedea phādai*. Gai honekin ikastaroa hasi aurretiko ekimenaz jarraitzea izan da asmoa, irudi-hiztegia lantzeko eta etorkizunean materiala sortzeko. Baina, lehenago esan den legez, ikastaroan asmoa irakasleak gaitzea da, eta ez materiala zuzenean sortzea. Gai

honen inguruan hainbat marrazki eta hitz-zerrenda bildu dira, eta metodo hau baliagarria da irakasleen alfabetatzea lantzeko, baina idazterakoan, hitz bakartuak errepresentatuz bukatzen da lana. 3. irudian ikus daiteke egindakoaren laginetako bat.

3. Irudia: Épera pedea phāдай irudi-hiztegiaren adibideetako bat: intsektuen irudiak eapida edo eyapida hizkuntzakian.




ārimararā tsake chi buru wēakede

*1 kūkusi, 2 ukana, 3 neturr, 4 sīta, 5 pōpō, 6 sisi,
7 jēsera, 8 ā-āri, 9 puru, 10 tusōre, 11 thāthā, 12 surra*


— *Ewaritsa b̥patḁ* delakoa irakaslearen koaderno da, enbereraz idazteko koaderno alegia, ikastaroan zehar irakasle bakoitzak erabili behar duena eta etxerako lanak ere bilduko dituen: eguneroko ikaspenak, eguneroko oharrak, etxeko lanak, eta abar. Leloa argia izan da, *ewaritsa b̥patḁ* honetan denaz eta edozertaz idatz daiteke, baina enbereraz. Helburuetako bat irakasleak hitz bakartuetatik esaldiak sortzera bultzatzea izan da. 4. irudian irakasle batek eginiko orri bat ikus daiteke. Bertan nabaria da hitz-zerrendaz gain, esaldi laburrak idazten ere hasi dela.

4. Irudia: ewaritsa ~~bupatau~~ egunerokoan bildutako adibideetako bat.



— *Tachi pedea*. Gure hitza esan nahi du, eta aldizkari bat izan nahi du, Chocón enbereraz idatzi den lehen aldizkaria, hain zuzen. Irakasleek taldeka berriak idatzi behar izan dituzte, egiten eta ikasten ari direnei buruz. 5. irudian lehen *Tachi pedea*-ren berrietako bi ikus daitezke.

5. Irudia: Tachi pedea aldizkariko orri bat.



— **Pakuru.** Ekimen honen bidez liburuxka egin nahi dute, eta gai zehatz baten inguruan ardaztutako materiala sortzeko gaitzen ari dira. Kasu zehatz honetan euren lurraldeko zuhaitzen inguruko liburuxka da. Liburuxka garatu aurretik, prestakuntzan trebatu dira: diseinua eginenez. Zuhaitz bakoitzaren inguruan eginiko idazkiak eskema berbera jarraitzen du. 6. irudian ikus daitezke eginiko hainbat marrazki eta idazki.

6. irudia: Pakuru liburuxka osatzeko material-sorta



— **Thachi tua.** Liburuxka honetan euren lurraldeko mapak bildu nahi dituzte. Baratzetakoak, herrixketakoak, eskualdeetakoak, babesgunetakoak, ibaietakoak eta abar. Bidenabar, toponimia ere bildu nahi dute. 7. irudian ikus daiteke marraztutako mapetako bat.

7. irudia: Thachi tua (Gure lurraldea) liburuxka osatzeko mapetako bat.



**Beharrezkoa
izango da
kolonbiarrek
euren legeak eta
erakundeak
aldatzea enberek,
eta indigenek,
euren eskola-
sistema
planifikatu,
zuzendu eta
kudeatu dezaten.**

Ekimen horiez gain, gehiago ere badira. Horretako batek, esaterako, abesti eta igarkizunen bilduma osatzea du helburu.

4. EGITASMOAREN ERRONKAK ETORKIZUNARI BEGIRA

I

Batetik, kanpoko erronkak daude, Kolonbiako lege eta erakundeek aldetik datozenak zein gizarte kolonbiarraren barnetik sortzen direnak. Beharrezkoa izango da kolonbiarrek euren legeak eta erakundeak aldatzea enberek, eta indigenek, euren eskola-sistema planifikatu, zuzendu eta kudeatu dezaten. Horrez gain, bitartekoak ere eman beharko zaizkie hori guztia gauzatzeko, eta orain arte eginiko kaltea ordaintzeko.

Bestetik, barne-erronkak ere badira, enbera herriaren barnetik da-rienak, hala nola, sakabanaketa, azpitaldetan bereiztea, kolonizatzaileek bultzatutako zatiketaren ondoriozko gaztazkak, eta abar. Edozelan ere, horietako asko kanpotik etorri zaizkie, kolonialismoren eskutik. Alabaina, orain arte erakutsi duten bizitasuna ikusirik gaintitu eta bideratu ahal izango dituztela uste dugu.

Amaitzeko, irakasle indigenen prestakuntza sendotu behar dela azpimarratu nahi dugu, eurek zuzenduko duten bidetik. Orogen gainetik, ezin da ahanzi indigenek euren lurraldea eta bizimodua kudeatzeko duten eskubidea.

2012ko azaroan zehar, enbereraren herrian eta euskal herrian ●

BIBLIOGRAFIA

- Aguirre Licht, Daniel (1992) Previsibilidad del acento Embera-Chamí. En *Lenguas Aborígenes de Colombia. Memorias 2*. Bogotá: Universidad de los Andes – CCLA, 31-62.
- Aguirre Licht, Daniel (1993) Lenguas sobrevivientes del Pacífico colombiano. En *Colombia Pacífico. Tomo I*. Bogotá: FEN – Universidad Nacional de Colombia, 310-325.
- Aguirre Licht, Daniel (1995) Fonología del ébêra-chamí de Cristianía (Departamento de Antioquia). En *Lenguas Aborígenes de Colombia. Descripciones 8. Estudios fonológicos del grupo Chocó*. Bogotá: Universidad de los Andes – CCLA, 9-86
- Aguirre Licht, Daniel (1999) *Embera*. München: Lincom Europa.
- Arellano, Ignacio y Arellano, Gabriel (arg.) (2002) *El idioma katío. Ensayo gramatical*. Frankfurt am Main eta Madrid: Vervuert - Iberoamericana
- Borja, Luis Alberto (2009) Vocabulario embera eyávida. Con traducción al español. Un aporte a la educación y conservación de la cultura.

- Universidad Autónoma Latinoamericana: eskuizkribua.
- Cayo Atienza, Ángel (2002) *El idioma katio. Ensayo gramatical*. Madrid – Frankfurt am Main: Iberomerica – Vervuert.
- Chaves Mendoza, Alvaro, Ulloa Cubillos, Elsa Astrid, Morales Gomez, Jorge, Ceron Solarte eta Conrado Benhur (1992) *Región del Pacífico: Awa-Cuaiquer- Emberá-Cuna-Waunana*. Bogotá: Instituto Colombiano de Cultura Hispánica.
- Fabre, Alain (2005) *Diccionario etnolingüístico y guía bibliográfica de los pueblos indígenas sudamericanos*. <http://www.scribd.com/doc/63014463/Alain-Fabre-2005-Diccionario-etnolingustico-y-guia-bibliografica-de-los-pueblos-indigenas-sudamericanos-1>
- Hoyos Benítez, Mario Edgar (2000) Informe Sobre la Lengua Embera del Rio Napiquí. *Lenguas Indígenas De Colombia: Una Visión Descriptiva*. Bogotá: Imprenta Patriótica Instituto Caro Y Cuervo, 73 – 83.
- Llerena Villalobos, Rito (1992) Estructura y variación en las fonologías de las lenguas èpèra de occidente y oriente. *Memorias del II Congreso del CCELA*. Bogotá: Universidad de Las Andes.
- Llerena Villalobos, Rito (1994) Sintaxis de la predicación de la lengua epera oriental del Alto Andágueda. *BIFEA* 23/3: 437-462.
- Loewen, Jacob (196) Chocó I: Introduction and Bibliography. *International Journal of American Linguistics*, XXIX, 3: 239-263.
- López, Luis Enrique eta Sichra, Inge (2008) Intercultural bilingual education for indigenous peoples in Latin American. Cummins J y Homberger N.H. (eds.) *Bilingual Education, Vol 5. Encyclopedia of Language and Education*. New York: Springer, 295-309.
- Martí, F., Ortega, P., Idiazabal, I., Barreña, A., Juaristi, P. Junyent, C., Uranga, B. eta Amorrortu E. (2005) *Words and worlds. World Languages Review*. London: Multilingual Matters.
- Mortensen, Charles Arthur (1999) *A Reference Grammar of Northern Embera Languages*. Texas: SIL International.
- Pardo, Mauricio (1985) *Gramática del idioma embera. Dialecto Alto Baudó. Informe Final*. Bogotá: Fundación Segunda Expedición Botánica.
- Pardo, Mauricio (1986) La situación de la lingüística sobre el grupo Chocó. *Memorias ICFS* 42, 87-117.
- Pardo, Mauricio (1987) *Elementos Gramaticales del embera del Noroccidente Antioqueño*. Medellín: Secretaría de Educación y Cultura de Antioquia.
- Pardo, Mauricio y Aguirre, Daniel (1993) Dialectología Chocó. María Luisa Rodríguez de Montes (arg.) *Estado actual de la clasificación de las lenguas indígenas de Colombia*. Bogotá: Instituto Caro y Cuervo, 269-312.

Pinto García, Constancio (1978) *Los indios katíos: su cultura, su lengua*. Medellín.

Rojas Curieux, Tulio (2009) Aspectos generales de la Llanura Costera del Pacífico. Sichra, Inge (koord.) *Atlas sociolingüístico de pueblos indígenas en América Latina*. Cochabamba: FUNPROEIB Andes, 647-676.

OHARRAK

1. Abya Yala *gunadule* (*kuna, tule*) hizkuntzan Amerika da, eta horrela erabiltzen da mugimendu indigenean gaztelaniaz ere.
2. Izena estatutik estatu aldatu egiten da.
3. Consejo Regional Indígena del Cauca.
4. Euskaraz enberera, gaztelaniaz eta ingelesez embera, eta enbereraz *ēpera* (Chocóko idazkeran) edo *ēbera* (Antioquiako idazkeran).
5. Enbereraz t eta p letrek, geroago ikusiko denez, euskaraz d eta b letrek adierazten duten hotsetatik hurrago daude euskarazko t eta p letrek adierazten dituzten hotsetatik baino.
6. Antioquia-n enberek, tuleekin batera, Organización Indígena de Antioquia (OIA) eratu dute; Cauca-n Consejo Regional Indígena del Cauca (CRIC entzutesua) zortzi herrik osatzen dute; Caldas-en Consejo Regional Indígena de Caldas (CRIDEC) elkartearen barruan ari dira; Valle-n Organización Regional Indígena del Valle del Cauca (ORIVAC) elkartearen barruan daude. Elkarte horiek guztiek Organización Nacional Indígena de Colombia (ONIC) eratu dute.
7. *Agrafo* terminoa idazkeran alfabeto latindarra, edo alfabeto fonologikoren bat, ez dute-lako erabili aukeratu da, jakina baita kultura indigena askok, enberena barne, marrazkiak erabili dituztela euren kulturako mitoak eta sinesmenak erakusteko.
8. Tamalgarria izan zen une horretan Borjaren (2009) lana ez ezagutzea.
9. Materialak diseinatzean beti jartzen zaio enbererazko izena.
10. *Geldiune harmatua* gerrillak aldarrikatua da, eta Chocón departamentu osoko bideak eta garraio bideak eteten ei dira, hiriburukoak izan ezik.